

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA – MYSTERY BIDAIA

Gure proiektua Mystery Bidaia Agentzia da, merkatuan berritzaileak diren bidaia pertsonalizatuak eskaintzeko diseinatua. Gure zerbitzu nagusia helmuga azken momentura arte ezezaguna duten bidaia zoragarriak dira, bezeroen jakin-mina piztuz eta abentura, sorpresa eta ilusioz betetako esperientziak eskainiz. Bidaiak bezeroen gustu eta zaletasunetara egokituko dira, betiere helmuga ezkutuan mantenduz, eta bidaien planifikazioak sortzen duen estresa saihestuz, esperientzia atsegina eta lasai batean bermatuko dugu. Prezioak pertsonaren ahalmen ekonomikoetara egokitzen dira, aukerak zabalduz prezio altu eta baxuetan, eta bezero bakoitzak erabaki dezake zer jarduera kontratatu, bere egoerara eta aurrekontuaren arabera.

Bezeroekin komunikazioa anitz eta pertsonalizatua izango da. Sare sozialak eta webgunea erabiliko ditugu eskaintzak zabaltzeko eta harreman zuzena mantentzeko, eta WhatsApp bidez komunikazio azkarra eskainiko dugu. Bezeroek autozerbitzua erabil dezakete webgunean erreserbak eta fakturak kudeatzeko, eta zerbitzu automatizatu batek, chatbot batek, informazioa eta erantzunak emango ditu. Era berean, 24 orduko arreta pertsonala bermatuko dugu, helmuga ezezaguna duten bezeroen segurtasuna eta laguntza etengabea ziurtatzeko.

Diru-sarrerak hiru iturritatik datoz: zerbitzu-tasak, produktu gehigarriak eta pakete turistikoak. Zerbitzu-tasak bidaia motaren arabera aldatzen dira, eta adibidez Tanzaniako 14 eguneko bidai estimaizo batek 3.361 €ko kostua du, Londreseko estimazioa 1.980,78€-koa da, Ibizako estimazioak 3.672,94€-ko balioa du eta Zarautzeko estimazioak 2.089,8€-ko prezioa du. Produktu gehigarriak, hala nola auto-alokairuak, jarduera turistikoak eta bisita gidatuak, marjina gehigarria sortzen dute, eta pakete turistikoak bidaia-elementuak pakete bakarrean salduz irabazi zuzena lortzea ahalbidetzen dute.

Proiektua garatzeko, hainbat baliabide garrantzitsu erabiliko dira. Baliabide fisikoak: triptikoak, lokalak eta materialak. Baliabide intelektualak: marka-irudia, logotipoa, ezagutza espezializatua eta edukia. Baliabide giza: langileak, marketing-arduradunak eta bezeroentzako arreta pertsonala. Baliabide finantzarioak: diru-sarrerak, inbertsioak eta maileguak. Azkenik, baliabide digitalak, sare sozialak eta webgunea, erakargarritasuna eta ikusgarritasuna bermatzeko funtsezkoak dira.

Funtsezko jarduerak bezeroen aholku pertsonalizatua eskaintzea, hornitzaileekin koordinatzea, webgunea eta sare sozialak eguneratuta mantentzea, eta bidaiaren aurretik eta ondoren bezeroei laguntza eskaintzea dira.

Merkatuaren segmentazioari dagokionez, gure zerbitzua gazteei, abenturazaleei, bikoteei, lagun taldeei eta solo travellers-ei zuzenduta dago. Diru-sarrera ertain eta altu dituzten bezeroek aukera gehiago izango dute esperientzia aberasteko, baina zerbitzua oinarrizko aurrekontua dutenentzat ere eskuragarri egongo da. Bidaiariek malgutasun handia izan behar dute, bidaia guztiz disfrutatzea ahalbidetzeko.

Azkenik, kostu egitura bi motatakoa da: kostu finkoak eta kostu aldakorrak (bidaia bakoitzeko hotel, garraio eta jarduera gastuak). Adibidez, Tanzaniako 14 eguneko bidaia 3.361€-ko kostua du, Londresekoak ordea 1.980,78€-koa, Ibizakoak 3.672,94€ eta Zarautzkoak 2.089,8€-koa. Kostu nagusiak hotelak eta hegazkina dira, urruneko eta turistiko ezaguneko helmugak garestiagoak izanik, eta helmugetako hotel-kalitateak ere prezioan eragina edukiz.

Laburbilduz, Mystery Bidaia Agentzia esperientzia originalak eta pertsonalizatuak eskaintzen dituen bidaia-agentzia bat da, bezeroen jakin-mina eta abentura asetzeko, prezio lehiakorrek eskainiz, aliantza estrategikoak eginez eta esperientzia osoa modu profesional eta erakargarrian kudeatuz.